

Euskal AEko industria-jarduerak % 5,6 egin du gora 2022ko abuztuan


2022. urteko lehen zortzi hiletako hazkuntza metatua % 6,7koa izan da

Euskal AEko industria-ekoizpena 2022ko abuztuan 2021eko hil berekoa baino % 5,6 handiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera.

Abuztuan, aurreko hilarekin –2022ko uztaila– erkatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 2,4 egin du gora, urtaro-ondorioak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko abuztuko indizearen bilakaera, 2021eko abuztuarekin alderatuta, positiboa izan da industria-sektore guztietan. *Energiaren* sektorean, energia elektrikoaren ekoizpena eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira; ekoizpenean % 15,9ko hazkuntza izan da. *Ekipo-ondasunek* % 1,6ko gorakada izan dute. Haien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza. Urte arteko % 1,2ko igoera izan dute jardueran, bestalde, *Bitarteko ondasunetako* jarduerak. Sektore horretan, honako jarduera hauek

sartzen dira, besteak beste: metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Kontsumo-ondasunek, bestalde, % 15,2ko igoera izan dute sektore osoan, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* ekoizpenak % 15,8 egin duelako gora eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan*, % 11,9. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* sektorearen barruan sartzen dira, besteak beste, honako jardura hauek: altzarien eta etxeke aparatuen fabrikazioa. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* epigrafean, elikagaien prozesatua eta kontserbazioa, garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta arropen jantzigintza sartzen dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	5,6	6,7	2,4
Araba/Álava	-2,6	5,3	1,9
Bizkaia	12,2	8,5	5,2
Gipuzkoa	3,0	5,8	0,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	15,2	5,2	9,3
Kontsumoondasun iraunkorrak	11,9	-1,1	7,2
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	15,8	6,9	9,8
Ekipo-ondasunak	1,6	10,9	0,9
Bitarteko ondasunak	1,2	2,1	1,4
Energia	15,9	15,4	-5,9

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hilera arte metatutako aldiari (Am), aurreko urtean pila-tutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Urriaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2022ko abuztuan urte arteko hazkuntza handiena honako hauek izan dute: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, % 19,1ekin; *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria*, % 13,4ekin, eta *Material eta ekipo elektrikoa*, % 11,7ekin. Kontrara, ekoizpenean beherakadak izan dituzten sektore esanguratsuak honako hauek izan dira: *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, % 5,0 egin baitu behera, eta *Garraio-materiala*, % 0,8 egin baitu behera.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Abuztua 2022

f t e Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	m / m-12
Elkadura ind., edariak, tabakoa	13,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-5,0
Kautxua eta plastikoak	7,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	0,2
Materiala eta tresna elektrikoak	11,7
Makineria eta tresneria	2,1
Garraio-materiala	-0,8
Energia elektrikoak, gasa eta lurruna	19,1

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal AEko Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Urriaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko abuztuan, Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban; bertan, % 2,6 egin du atzera industria-jarduerak. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, portaera positiboa izan da; % 12,2ko eta % 3,0ko hazkuntza izan dute, hurrenez hurren.

2022KO LEHEN ZORTZI HILETAKO BALANTZEA

2022ko urtarrilaren eta abuztuaren arteko aldian, industria-sektorean hazkuntza metatua % 6,7koa izan da. Bilakaera positibo hori honako hauen portaera onaren ondorio izan da: *Energia*, *Ekipo-ondasunak* eta *Kontsumo-ondasunak*; haietan, aurten, orain arte, % 15,4ko, % 10,9ko eta % 5,2ko hazkuntza metatuak izan dira, hurrenez hurren. *Kontsumo-ondasunen* hazkuntza metatua *Kontsumo ez-iraunkorren ondasunen* bilakaera positiboaren (% 6,9) ondorio da; izan ere, *Kontsumo iraunkorren ondasunek* portaera negatiboa izan dute, % 1,1eko jaitsiera, urteko lehen zortzi hiletan.

Lurraldeen arabera, hirurek izan dituzte tasa positibo metatuak: % 8,5koa Bizkaian, % 5,8koa Gipuzkoan eta % 5,3koa Araban.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren **% 91,84ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62